

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Lekuona, Mitxelena, Villasante, Irigaray, Lojendio, Gorostiaga, eta Arrue jaunak. Loidi, Artola, San Martin, Zabala, eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da. Irigaray-k diño ezta bere izena agertzen, baiña bera be egon zala Abenduko batzarrean, eta baita Azarokoan be. Ontzat artu da agiria.

Loidi jaunak eskatu dau Euskaltzaindikoai bialdu dakiela jagon-sailleko oiñarien kopia bana. Alan egin bedi.

Jesus Oleaga jauna, Nazario Oleaga zanaren semeak, bere ama eta nebarreben izenean eskerrak emoten deuskuz gure atsekabea agertu deutsegulako.

Arantzazuko komentutik bialdu daben orri bat irakurri da. Itzaldi-gai batzuk dagoz bertan: soziologia, teologia, politika, filosofia eta bestelako jakintzen gaiñean.

Universitets biblioteket / Uppsala-tik karta bat bialdu dabe. Guk Euskera bialdu daigun gura leukie *Studia neophilologica*-ren truke. Bialdu bekie.

Egin zan Euskalzaleen Biltzarra Donostiako Ayuntamentu zaarrean. Norbaitek eskatu eban an Euskalerriko apezpiku jaunei Euskaltzaindiak eskabide bat egin bear leuskiela geroago ta geiago aintzat artu daien euskerea elexetan erabiltea. Estudiau bedi zelan egin eskabidea. Labayen jaunak, Euskalzaleen Biltzarrean berba egin zanez, teatro taldeen arteko txapelketa bat egiteko asmo batzuk agertu ditu lerro batzuetan. Zubicaray-k gai beraren gaiñean egindako karta bat be irakurri da. Emon bekie Euskaltzaindikoai Labayen-ek bialdu dauenaren kopia bana, Zubicaray-n erexiak be zeintzuk direan azaldurik, eta aztertu bedi diñoena.

Errege egunean Donostiako Victoria Eugenia teatroan bertsolarien saioa egin zan. Saio bikaiña.

Bilboko Arriaga teatroan, Urtarrillaren 7-an, urteroko jaia egin zan. Aurretik azaldu zanez Tolosa-ko Lizardi teatro-taldeak eta Ondarroako ume kantariak parte artu eben.

Euskerazko esamiñetan sarituak izan zirean Ondarroako neska-mutillai ez jakiez partidu sariak Urtarrillaren 14-an, esan zan legez, eta 28-an egingo da.

Ipiñi da ola eta emon da pinkia Euskaltzaindiaren etxeko soruan. Aresti jaunaren bidez ola bialdu eban Llaudio-ko fabrikeak iru milla pesetaraño jatsi dau kontua. Eskerrak emon bekiez.

Aita Luis Villasante-ri Luis Sala Balust jaunak idatzi deutsan karta bat irakurri da. Axular-en *Gero* erderaz eta euskeraz argitaratu gura dabe eta "Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo" eta Euskaltzaindiaren laguntasuna gura leukie, au da, ale batzuk erosi daiguzan gero gure kontura saltzeko. *Gero* liburu famatua erderaz eta euskeraz argitaratzea asko ta asko merezi dauen gauzea da argi ta garbi ikusiko leukielako erdaldunak bere literatura balioa eta munduari ezagututen emongo litzakioalako. Egin beitez alegiñak laguntasuna emôteko.

Aurrerantzean bertsolarien txapelketak egiteko arautegi bat Euskaltzaindiari aurkeztu deien Arrue, Lekuona, Aita Zabala eta Artola izentau dira.

Aita Antonio Zabala-k aurreko batzarrean eskatu jakon ponentzia ekarri eta irakurri dau. Egin bekio Gipuzkoako Aharro Kaxeari eskabidea urtero sari bat emon daian, eta erdi bana izan bedi poeta mueta bientzat: olerkariarentzat eta bertsolari-entzak. Bertsolariak euren bertsoakaz argitaratutako paperak bialdu bearko leukiez sariketara.

Rudolf De Rijk jaunari Azkue-n "Particularidades del Dialecto Roncalés" eta "Aezkera" bialdu jakozan Jon Etxaide jaunaren eskabidez eta eskerrak emoten dituz euskeraz oso ondo idatzitako karta batean.

Aurreko batzarrean Arruza jaunak egindako deskarguak irakurri zirean eta gai beraren gaiñean berba egin da erabagi bat artuteko asmoagaz. Ago batez urrenge au artu da: Euskaltzaindiak artutako erabagi bat aintzat artu eztauelako oker jokatu dau Arruza jaunak auzi onetan eta aurrerantzean gauzak zuzen joan daitezau ezin egin dau ezer bere gisa Euskaltzaindiaren izenean, eta joan dan Azaroaren batzarrean erabagi zanez Loidi jauna gelditu zan batzar-buruzagi jagon-sailleko sekretario lege zerbait egitea gura danean Euskaltzaindiko sekretaritzeagaz bat eginda ibilteko. Ignacio Maria Etxaide jauna batzar-buruzagi jagon-sailleko buru dala bide orretatik bijoa jagon-sailla.

Aita Villasante-k gramatikearen bosgarren kapitulua ekarri dau batzarrera.

Beste barik oi dan otoiitzagaz amaitu da batzarra.

I. M.^a Etxaide